

Euskararen Jarraipena III, Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa 2001

EAEko emaitzak kalean: aurrerapen izugarria, ezkutuan



Euskararen Jarraipena III, 2001. urteko datuak biltzen dituen Euskal Herriko Inkesta Soziolinguistikoa emaitzak aurkezteari ekin dio berriki Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak. Hasteko, EAEn dagozkion ikerketaren ondorioak kaleratu dituzte eta, laster Nafarroari eta Ipar Euskal Herriari dagozkienak aurkeztuko dituzte.

Inkesta honetako ondorioen arabera, euskara hizkuntza gutxitua da oraindik ere EAEn, nahiz eta azken bi hamarkadetan bere bilakaera oso positiboa izan den.

Bilakaera soziolinguistikoa, dena den, euskal gizartearen bilakaeraren baitan ulertu behar da. Izan ere, populazioak behar du, etengabe zahartzen ari da, eta etorkinen populazioa, berriz, ugartzen.

EAEko panorama soziolinguistikoa laburtzekotan, honela esan beharko genuke:

-Populazioaren gehiengo euskararen normalizatorako neurri jakinak hartzearen alde dago.

-Hizkuntza-gaitasunari dagokionez, euskarak aurrera egin du: euskara galtzeko joera zen lehen. Orain, aldiz, euskaldunen proportzioa gero eta handiagoa da gazteen artean, aurreko belaunaldiekin alderatuz bederen.

-Familia bidezko transmisioa ia erabatekoa da gurasoetan biek euskaraz dakitenean. Gainera, gero eta gehiago gertatzen da transmisio hori bi gurasoetarik batek hitz egiten

dakinean ere. Are gehiago, aita eta ama euskaldun berriak diren hiru bikotetik batek lehen hizkuntza gisa transmititzen die euskara seme-alabei.

-Euskararen erabilera bera ere gero eta handiagoa da, gazteen artean batik bat. Baina hamar urteko atzerapena du eta ezagutza bera baino gutxiago handitu da.

Arestian esan bezala, oinarritzko adierazle diren horien adin-kako bilakaera oso positiboa izan da hamar urte honetan. Dударik gabe, euskararen egiazko aurrerapena laburtzeko eta irudikatzeko baliagarri dira. Esaterako, 50 urte baino gutxiago dituztenen artean elebitasunak aurrera egin du: 35 eta 49 urte bitarteko lau pertsonatik bat elebidun da (%25,1); baita 25 eta 34 urte bitarteko hiru pertsonatik bat (%31,3) eta 16 eta 24 urte bitarteko bi pertsonatik bat ere (%48,5). Hala ere, aurrerapen izugarri hau ezkutuan gelditzen da populazio osoaren baitan, jaiotzak ikaragarri gutxitu eta biztanleriarik gazteenak gero eta pisu txikiagoa baitu populazio osoan. Bada epe ertainean gero eta eragin handiagoa sortuko duen beste ondorio bat ere: etorkin berrien etorrera handia. Horrek bilakaera soziolinguistikoa eragin negatiborik izan ez dezan, berriz, EAEko bi hizkuntza ofizialak ikasteko aukera izan dezaten politika berezia jarri beharko da abian.

Emaitzak Internet bidez ere kontsulta litezke www.euskadi.net/euskara helbidean.



1

Euskararen Jarraipena III. EAEko emaitzak

2

PERTSONAJEA: Yon Oñatibia

LABURRAK

- *Berria berri!*, egunkari berriaren kanpaina

- Bertsolaritza sinposioa Renon (Nevada)

- "Joaquin Elozegi" saria Iñaki Agirreazkuenagarentzat

3

Euskal Herriko bertso eskolak

Eibarko euskararen inguruko ikerketak

4

Udaletan euskara biziberritzeko prozedura

Argia astekaria berriturik

Euskal Herriko bertso eskolak



Gaiari buruzko monografikoa *Bertsolari* aldizkarian

Euskal Herriko bertso eskolei eskaini die 48. alea *Bertsolari* aldizkariak. Testuz eta argazkiz mukurua horniturik dator ale monografikoa eta testuen egile Ainhoa Agirreazaldegik bertan dioenez "laurogeita hamargarren hamarkadako 'boom' axaleko hura gainditu eta gero, inoiz baino indartsuago eta sendoago dago bertsoaritza. Eta horretan errurik handienetakoa bertso eskolek dute".

Oraintsu, hogeitau urte baino gehiago dira lehen bertso eskolak sortu zirela eta *Bertsolari*-ren aleak bertso eskolen argazkia egiten du, zenbat dauden, zer lantzen den bertan, eskolak emateko moldeak eta beste, aztertuz.

Aldizkariak garbi dio, bertso eskolak direla eta: "Horra, azken Bertsolari Txapelketa Nagusian ikusi genuen bertso eskolen emaitzak noraino iritsi diren".

Ondoko mapak Euskal Herrian diren bertso eskolak biltzen ditu.



Eibarko euskararen inguruko ikerketak tesi batean landu ditu Nerea Areta Azpirik

Eusko Ikaskuntzaren *Euskonews & Media* aldizkari elektronikoaren 209. aleak, besteren artean, Nerea Areta Azpirik Eibarko euskararen inguruan prestatu duen artikulua argitaratu du. Horretarako, berak prestatutako *Eibarko euskara Morfologiako arlo baten azterketa: izen sintagmaren deklinabidea, adjektibo sintagma eta adberbio sintagma tesiak* izenekoan oinarritu da. Bertan, euskarak herrian historikoki izan duen eta duen ondasun linguistiko jatorra, hau da, ohikoa edota betikoa, jasotzeko bidea ezarri du egileak. Ondoren, azterketa sinkroniko estrukturalaren bidetik jo du, morfologiako alor baten sistema azaltzeko asmotan.




Horrela eginez, herriko aberastasun kultural linguistikoa erakutsi du Nerea Areta Azpirik, eta, horrekin batera, oinarritzko nortasunaren definitzaile den memoria historikoa gordetzeko eta ikertzeko bidea ere ezarri du.

Honako mailak jaso dira tesian: fonetika eta fonologia segmentalak; morfologian, deklinabidea (izena, adjektiboa, izenordainak, erakusleak, zenbatzaileak), adberbioa, mailakatzailak eta aditza; sintaxian, koordinazioa, menderakuntza eta bestelako testu-loturak. Dialektologia pertzeptuari dagokion atala ere gehitu die ikertzaileak gai horiei eta lexiko maila ere jaso du. CD-ROM batean aurkeztu du hori guztia.

Udaletan euskara biziberritzeko prozedura

Euskara Biziberritzeko Planak abian udaletan eta mankomunitateetan



Uda aurretik abian izango dira 2002. urtean lantzen hasi ziren hainbat udaletako eta mankomunitateetako Euskara Biziberritzeko Planak. Horrela, Beasain, Lasarte-Oria, Mungia, Arrigorriaga, Orio, Txorierriko Mankomunitatea, Eibar, Elgoibar, Gernika-Lumo, Getxo, Tolosa eta Zestoia izan dira, besteak beste, lan honetan aitzindariak.

Udal hauek Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren laguntza eta aholkularitza izan dute prozesuan zehar. Aholkularitza horren alderdi aipagarriena, lanerako finkatutako prozedura da. Horren arabera prozesuari hasiera emateko interesa duten udalek eskaera formalak egin behar diote Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzari, eskaera horretan EBPN udalerrian garatzeko borondatea azalduz.

Ondoren, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza harremanetan jartzen da udalarekin, maila politikoan, lehenengo bilera egiteko. Bilera horretan HPSK finkatu duen lanerako prozedura aurkezten du eta udalak hartu beharreko kon-



promisoak zehazten dira. Udalak proposaturiko konpromisoak onartu ondoren prozesuak aurrera egiten du eta lan teknikoak garatzeko bidea abian jartzen da.

Udalak hartzen dituen konpromisoen artean, euskararen sustapenerako dituen baliabideak indartzeko konpromisoa dago. Horrekin batera, udalak gizarte-eragileekin plana osatzeko borondatea eta konpromisoa ere azaldu behar du.

Argia astekariaren itxura berria

Aldizkari berri-tua da *Argia* joan den maiatzaz gero. Euskal Herriko informazio orokorreko astekari dekanak itxura eta edukiak berritu eta izen ezagunak bildu ditu. Sailei dagokienez, kultura eta aisia ekarri ditu erdiko orrialdeetara. Aldizkariaren zuzendari Xabier Letonaren hitzetan "garaian garaiko ezaugarriekin, egokitze ahalmenak eman dio *Argia* aldizkariari euskal prentsaren dekanatu titulua".



Lehen zenbaki berrituan Anjel Lertxundi, Karmelo Landa, Mikel Irizar eta Iban Zalduaren kolaborazioak ageri dira eta hurrengoetan Bernardo Atxaga, Andoni Egaña eta Piter Ansorenaren kolaborazioak izango dituzte, besteak beste. Ale berean jasotako gaien artean, nabarmentzekoak dira ezker abertzalerik gabeko hauteskundeengatik inguruko hausnarketa, Antonio Alvarez Solís-i egindako elkarrizketa eta Patxi Salaberri, Jean Haritxelhar eta Patxi Ezkiagak 1900 arteko literatura idatziari buruzko mahai-ingurua.

Azala berriturik, 2003 urte honetan aldaketa gehiago ere izango dela jakinarazi dute proiektuaren arduradunek.

Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Donostia-San Sebastián, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 81 16
e-posta: l-Sosoaga@ej-gv.es

Euskara

Gaztelania

Izen-deiturak:

.....

Helbidea:

.....

Herria:

kodea:Lurraldea:.....

Tel.:

e-posta: